48 19

OIZEKO AIRE ISTRIPUA


Iberia konpainiaren Boeing-727 “Alhambra de Granada” aireontzia IB610 hegaldi erregularra egiten ari zen (Madril-Bilbo), 54 m altuerako egitura metaliko baten aurka talka egin zuenean. Hura euskal telebistak (EITB) Oiz mendian 1000 metroko kotan instalatu zuen antenarena zen (Oiz mendiko gailurra 1027 metrokoa da).

Madril-Barajas aireportutik aireratu zen 7:47an, 1985eko otsailaren 19an, eta Bilboko aireportuan 8:35ean lurreratzeko asmoa zuen. Hegazkineko komandanteak kontroleko dorrearekin 8:22ean hitz egin zuen azkeneko aldiz.


Istripua izandako hegazkinaren hondakinen azterketatik, ondorioztatu ahal izan zen, fuselajearen aurreko beheko aldeak antenarekin talka egin zuela eta ondoren, ezkerraldeko hegoarekin. Azken hura gainontzeko aparatutik askatu zen. Baldintza hauetan, kontroletik at, hegazkina lurraren kontra erori zen antenaren ekialdetik 930 metrora, eta une horretatik aurrera, 250 metroz mugitu zen pinuez jositako mendi magaletik, bertan, batezbesteko 16 metroko gune bat pinu gabe utzita. Hortik zehar, hegazkinaren osagarri desberdinak sakabanatuta geratu ziren eta hondakin nagusiak geldirik geratu ziren haraneko beheko aldera iristean.

Istripuan hegazkineko okupatzaile guztiak hil egin ziren: 141 bidaiaria eta tripulazioaren 7 kide. Istripuaren kausak gizakiaren akats bati leporatu zitzaizkion, hegaldiaren altitudea modu okerrean interpretatzeagatik, nahiz eta bestelako hipotesiak ere izan ziren.

Gehiago jakiteko: Informe final : accidente ocurrido el 19 de febrero de 1985.../ [Comisión de Accidentes de Aviación Civil], 1985.



Ortoargazkia 1985 + nibel kurbak. Iturria: Eusko Jaurlaritza / G. Vasco, geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia. UTM 30N ETRS89 // X: 533523.0033 // Y: 4786198.9959 // Z: 887 m (irudiaren erdian). Gezi batekin adierazi da lehenengo talka izan zen EITBko antena eta hegazkinak uzten duen 250 m luzerako arrastoa, pinuditik zehar mugitu ondoren.



Hegazkina Oiz pinuditik mugitzearen arrastoaren xehetasuna. Bere luzera 250 metrokoa eta zabalera 17 metrokoa da.